



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



FILOSOFIAREN
HISTORIA

HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

EZAUGARRI OROKORRAK:

Azterketak hiru galdera ditu.

Lehenengo galderan testu filosofiko baten ulermena landuko da. Bigarren galderan ikasleek disertazio filosofiko bat idatzi beharko dute. Hirugarren galderan auzi teorikoak erantzun beharko dituzte.

1.- TESTU ULERMENA:

Ikasleek A eta B aukeren artean hautatu beharko dute eta dagokion pasartea laburtu, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. Galdera honek puntu bat balioko du eta oinarrizko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

2.- DISERTAZIOA.

Ikasleek planteatzen zaien gai bati buruzko disertazio bat idatzi beharko dute. Idatzia testuinguru historikoan kokatzeko, tesi bat emango zaie eta galdera bat edo bi proposatu. Ikasleek tesiaren aldeko eta kontrako argudioak eman beharko dituzte, historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta euren lana borobildu beharko dute ondorio eta iritzi pertsonal batekin. Galdera honek lau puntu balioko ditu eta oinarrizko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

3.- FILOSOFIAREN HISTORIA BERRIKUSTEN.

Ikasleek proposatzen zaizkien lau galderetatik BI garatu beharko dituzte. Galdera honek bost puntu balioko ditu (bi puntu eta erdi galdera bakoitzak) eta oinarrizko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

OHARRAK:

Blokeak Curriculumean agertzen diren hauek dira:

- Filosofiaren sorreratik Grezian, antzinaroaren amaierara.
- Erdi Arotik Europako Modernitatera.
- Modernitatetik postmodernitatera.

Azterketan hiru bloke horiei buruz galdetuko da, eta ez bloke bakar bati buruz. Galdera bakoitza bloke ezberdin bati egokituko zaio. Lehenengo galderari eta hirugarren galderari dagokionez, aukerak eskainiko dituzten horiei dagokienez hain zuzen ere, galdera bakoitza bloke ezberdin batekin lotuko da, eta bloke horren barne eskainiko dira aukerak. Adibidez: lehenengo galderaren bi testuak B blokeari buruzkoak badira, bigarren galdera A blokeari buruzkoa izan daiteke, eta, horrela, hirugarren galderan C blokeari buruzko galderak proposatuko lirateke.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

ZUZENTASUN ORTOGRAFIKOA:

Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu 1 arte eta, guztira, probaren azken notaren %10eko murrizketa suposatuko du gehienez.

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

CARACTERÍSTICAS GENERALES:

El examen está compuesto de tres preguntas. En la primera se trabajará la comprensión de un texto filosófico. En la segunda el alumnado tendrá que escribir una disertación. Por último, en la tercera pregunta, tendrán que desarrollar cuestiones teóricas.

1.- COMPRENSIÓN DEL TEXTO:

Se darán a elegir dos textos, A y B, para evaluar la comprensión. El alumnado deberá realizar un resumen del pasaje que elija, respetando las ideas expresadas en el texto, así como la relación entre ellas. Esta pregunta valdrá un punto, y corresponderá al bloque A, B o C.

2.- DISERTACIÓN:

El alumnado deberá escribir una disertación sobre el tema que se le proponga. Con el fin de contextualizar su redacción, se propondrá una tesis y una o dos preguntas. El alumnado deberá desarrollar argumentos a favor y en contra de la tesis propuesta, y reforzarlos con distintos planteamientos que se han dado a lo largo de la historia, para terminar con una conclusión y opinión personal. Esta pregunta valdrá cuatro puntos, y corresponderá al bloque A, B o C.

3.- REVISITANDO LA HISTORIA DE LA FILOSOFÍA.

Se ofrecerán cuatro preguntas y deberán responderse DOS de ellas. Esta parte valdrá cinco puntos (dos puntos y medio cada pregunta), y corresponderá al bloque A, B o C.

OBSERVACIONES:

Los bloques que aparecen en el currículum son los siguientes:

- A. Del origen de la filosofía en Grecia de hasta el fin de la antigüedad.
- B. De la Edad Media a la Modernidad europea.
- C. De la modernidad a la postmodernidad.

En el examen se harán preguntas de los tres bloques. Cada pregunta corresponderá a uno de los bloques. En la primera y en la tercera pregunta; esto es, en las preguntas con más de una opción a elegir, cada pregunta será referida a uno de los bloques y las opciones se darán dentro de ese marco histórico y teórico. Por ejemplo: si los dos textos de la primera pregunta

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

son sobre el bloque B, la segunda pregunta puede hacer referencia al bloque A y, en ese caso, las preguntas propuestas para la tercera pregunta se centrarían en el bloque C.

CORRECCIÓN ORTOGRÁFICA:

Cada error ortográfico se penalizará con 0,1 puntos, hasta un máximo de 1 punto, suponiendo en total un máximo de un 10% de penalización sobre la nota final de la prueba.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



FILOSOFIAREN
HISTORIA

HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA

1.- TESTU ULERMENA: Hautatu A edo B aukera eta laburtu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (puntu 1). Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 1 eta 7. Oinarrizko jakintzak: Filosofiaren sorreratik Grezian, antzinaroaren amaierara.

A AUKERA

“Adiskide maitea, berriro ahaztu duzu - esan nuen- legeari ez zaiola interesatzen egundoko zorientasunaz gozaten duen gizatalderik egotea; osterantzean, hiri osoan zoriona zabaltzen ahaleginduko da, eta konbentzituta edo behartuta hirikideen artean bizikidetasuna ere sartzen, bakoitzak taldearen mesedetan eman ditzakeen laguntzak emanaraziz. Legeak berak tankerako gizakiak hezten ditu, ez baina, norberak nahi duen eran jarduteko, baizik eta estatuaren batasuna lortzeko asmotan.”

Platon, *Errepublik*a, VII. Liburua

B AUKERA

“Gizaki guztiek berez dute jakiteko guraria. Horren adierazle da sentimenei egiten diegun estimua, horiek berez baititugu estimatzen, beren baliagarritasuna alde batera utzita, eta beste edozein baino gehiago ikusmena. Eta ez bakarrik ekintzari begira, zeren, ezer egin behar ez badugu ere, esan baitezakegu nahiago izaten dugula ikusmena, gainerako sentimenak baino. Eta arrazoia hau da: sentimenean berak laguntzen digula gehien gauzak ezagutzen eta horien alderdi ezberdin asko erakusten dizkigula.”

Aristoteles, *Metafisika* I, 1.

2.- DISERTAZIOA: idatzi azpian duzun galderaren inguruko disertazio bat. Eman tesiaren aldeko eta kontrako argudioak, historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta borobildu zure idazlana ondorio eta iritzi pertsonalarekin. (200-300 hitz)(4 puntu). Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 2, 3 ,8 eta 9. Oinarrizko jakintzak: Erdi Arotik Europako Modernitatera.

- Helenismotik aurrera zorientasunari buruzko auziak garrantzi handia hartuko du, erlijioetan ere interesgune bihurtuz. Hiponako Agustinen ustez ondasun iraunkorrek dira zorientasunaren iturburu, eta zehazki "Jainkoaren jabe dena da zorientsu". Bada zorientsu izaterik? Eta, hala bada, zerk egiten gaitu zorientsu?

3.- FILOSOFIAREN HISTORIA BERRIKUSTEN. Hautatu hurrengo galderetatik BI eta garatu erantzun bakoitza gehienez 250 hitzetan (2x2,5 puntu). Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 4, 5 eta 6. Oinarrizko jakintzak: Modernitatetik postmodernitatera.

- Alienazio ekonomikoa Marxen arabera.
- Apolineoa eta dionisiakoa Nietzscheren pentsamenduan.
- Feminismoaren garapen garaikidea: Simone de Beauvoir. Zer da emakumea izatea? “Emakumearen” kategoriaren problematizazioa.
- Kapitalismoaren kritika, Hannah Arendt-en totalitarismoaren analisia: Totalitarismoaren jatorria, gaitz absolutoa.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

USaP
2024/25

AZTERKETA EREDUA

PAU
2024/25

MODELO DE EXAMEN



FILOSOFIAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

1.- COMPRENSIÓN DEL TEXTO: Elige entre los textos A y B y resume el pasaje, respetando las ideas expresadas en el texto y así como la relación entre ellas (1 punto). Competencias Específicas a evaluar: 1 y 7. Saberes básicos: Del origen de la filosofía en Grecia de hasta el fin de la antigüedad.

OPCIÓN A

“Te has vuelto a olvidar, querido amigo -dije- de que a la ley no le interesa nada que haya en la ciudad una clase que goce de particular felicidad, sino que se esfuerza por que ello le suceda a la ciudad entera, y por eso introduce la armonía entre los ciudadanos por medio de la persuasión o la fuerza, hace que unos hagan a otros partícipes de los beneficios con que cada cual pueda ser útil a la comunidad, y ella misma forma en la ciudad hombres de esta clase, pero no para dejarles que cada uno se vuelva hacia donde quiera, sino para usar ella misma de ellos con miras a la unificación del Estado.”

Platón, *República*, Libro VII.

OPCIÓN B

“Todos los hombres por naturaleza desean saber. Señal de ello es el amor a las sensaciones. Éstas, en efecto, son amadas por sí mismas, incluso al margen de su utilidad, y más que todas las demás, las sensaciones visuales. Y es que no sólo en orden a la acción, sino cuando no vamos a actuar, preferimos la visión a todas las demás. La razón estriba en que en ésta es, de las sensaciones, la que más nos hace conocer y muestra múltiples diferencias.”

Aristóteles, *Metafísica* I, 1.

2.- DISERTACIÓN: escribe una disertación sobre la pregunta que se propone abajo. Desarrolla argumentos a favor y en contra de la tesis propuesta, refuerzalos con distintos planteamientos que se hayan dado a lo largo de la historia y termina tu argumentación con una conclusión y opinión personal. (200-300 palabras) (4 puntos). Competencias específicas a evaluar: 2, 3, 8 y 9. Saberes básicos: De la Edad Media a la Modernidad europea.

● A partir del helenismo los juicios en torno a la felicidad cobran especial importancia, siendo de interés también para las religiones. Según Agustín de Hipona los bienes duraderos son el origen de la felicidad, concretamente “quien posee a Dios conseguirá la felicidad”. ¿Es posible ser feliz? Y, si así fuera, ¿qué nos hace felices?

3.- REVISITANDO LA HISTORIA DE LA FILOSOFÍA. Selecciona DOS de las siguientes preguntas y desarrolla cada respuesta en un máximo de 250 palabras (2x2,5 puntos). Competencias específicas a evaluar: 4, 5 y 6. Saberes básicos: De la modernidad a la postmodernidad.

- La alienación económica según Marx.
- Lo apolíneo y lo dionisiaco en el pensamiento de Nietzsche.
- El desarrollo contemporáneo del feminismo: Simone de Beauvoir. ¿Qué es ser mujer? La problematización de la categoría de “mujer”.
- Crítica al capitalismo, el análisis del totalitarismo de Hannah Arendt: el origen del totalitarismo, el mal absoluto.

FILOSOFIAREN HISTORIA / HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK:

1) TESTU ULERMENA. PUNTU 1.

Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 1 eta 7.

Laburpena zuzentzeko irizpideak:

Kontuan izango da laburpena testua baino laburragoa izan behar dela. Testua baino luzeagoa den azalpena idazten baldin badu ikasleak, ez da laburpen bezala onartuko.

- 0 PUNTU: Ikasleak ez du testuaren ideia nagusia aurkezten.
- 0.5 PUNTU: Ikasleak testuaren ideia nagusia aurkezten du baina ez oso modu egokian. Jatorrizko testuaren hitzak gehiegi errepikatzen dira edota ez daude ideiak ondo lotuak.
- PUNTU 1: Ikasleak testuaren ideia nagusia eta azpi-ideiak modu antolatuan aurkezten ditu. Testu ulermena ez da jatorrizko testuko hitzen errepikapen soila: beste hitzekin eta hizkuntza filosofiko egoki batean laburtuta dago.

2) DISERTAZIOA. 4 PUNTU.

Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 2, 3, 8 eta 9

Disertazioa oinarrizko edukien bloke batekin lotuko da (A, B edo C), baina, ikasleak edozein garaiko autoreren ekarpenak erabili ahal izango ditu aldeko eta kontrako argudioak emateko eta baita iritzi propioa argudiatzeko edota egunerokotasunarekin lotzeko ere.

2. Konpetentzia Espezifikoa: Adierazpen argia eta zehatza	3. Konpetentzia Espezifikoa: Estruktura egokia	9. Konpetentzia Espezifikoa: Argudiatze zuzena eta aberatsa	8. Konpetentzia Espezifikoa: Originaltasuna
0,5 puntu	puntu 1	1,5 puntu	puntu 1
<ul style="list-style-type: none"> ● Erabilitako hiztegia egokia da eta gaiarekin lotuta dago. ● Paragrafoen arteko lotura dago, irakurketa erraza delarik. ● Sintaxia zuzena da. ● Aurkezpena txukuna da. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Sarrera argia da: gaiaren aurkezpena egiten da, tesia aurkezten da edo galdera berri batekin planteatzen da. ● Garapena argia da: gaiarekin lotutako ideiak aurkezten dira eta ideien arteko lotura dago. ● Konklusioa argia da: tesiari eusten zaio 	<ul style="list-style-type: none"> ● Erreferentzia egiten zaie gutxienez 2 autoreei. ● Argudiaketa: galdetzen denari lotuta dago eta sendoa da. Gutxienez 2 argudio ematen dira. <p>Aurrekoak baloratzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Objektiboa eta kritikoa izateko esfortzua ikusten da, aurreiritziek eramaten utzi gabe. ● Garapen koherente eta sendoa egiteko esfortzua ikusten 	<ul style="list-style-type: none"> ● Egunerokotasunarekin lotuta dago. ● Ez da beste proposamen baten kopia egiten. ● Perspektiba pertsonala erakusten da.

	eta horren aldeko /aurkako aurreko argudioak laburtzen dira. <ul style="list-style-type: none"> • Koherentzia mantentzen da: ez dago kontraesanik. 	da. <ul style="list-style-type: none"> • Arazoaren konplexutasuna kontuan hartzen du eta filosofiaren historian landu diren ikuspegi aniztasuna islatzen du bere argudiaketan (gutxienez elkarren artean bateragarriak ez diren bi ikuspegi aipatzen ditu, hau da, argudio edo ideia berdina elikatzen ez duten bi ikuspegi islatzen dituela). 	
--	---	---	--

3) GALDERA TEORIKOAK. 5 PUNTU (2 X 2,5 PUNTU)

Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 4, 5 eta 6.

Seinalatzen diren kalifikazioen artean ere puntuatu daiteke erantzun bat.

- 0 PUNTU: Ikasleak ez ditu galderak eskatzen dituen kontzeptu filosofikoak azaltzen. Erantzuna ez da hitz kopuruetara egokitzen.
- 0,75 PUNTU: Galderari buruzko azalezko erantzuna ematen du ikasleak. Kontzeptu filosofikoen erabilpena oinarritzkoa baino ez da eta kontzeptuen arteko lotura ez da oso argia. Erantzuna ez da hitz kopuruetara egokitzen.
- PUNTU 1,5: Galderari buruzko ezagutza ona duela erakusten du ikasleak. Galderak eskatzen dituen kontzeptu filosofikoen erabilpena egin ditu, baina ez ditu guztiak aipatzen edo behar beste garatzen. Erantzuna hitz kopuruetara egokitzen da.
- 2,5 PUNTU: Galderari buruzko ezagutza zabala eta sakona duela erakusten du ikasleak. Bikaina da kontzeptu filosofikoen erabilpena eta haien arteko lotura. Erantzuna hitz kopuruetara egokitzen da.

ZUZENTASUN ORTOGRAFIKOA:

Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu 1 arte eta, guztira, probaren azken notaren %10eko murrizketa suposatuko du gehienez.

CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

1.- COMPRENSIÓN DEL TEXTO. 1 PUNTO.

Competencias Específicas a evaluar: 1 y 7.

Criterios de evaluación para la corrección del resumen:

Se tendrá en cuenta que el resumen debe ser más breve que el texto. Si el/la alumn@ escribe una explicación más larga que el texto, no se admitirá como resumen.

0 PUNTOS: la respuesta no presenta la idea principal del texto.

0.5 PUNTOS: la respuesta presenta la idea principal del texto pero de forma poco adecuada. Las palabras del texto original se repiten demasiado o las ideas no están bien relacionadas.

PUNTO 1: la respuesta presenta la idea principal y las ideas secundarias del texto de forma organizada. No es una simple repetición de las palabras del texto original, el contenido está resumido con otras palabras y en un lenguaje filosófico adecuado.

2.- DISERTACIÓN. 4 PUNTOS.

Competencias específicas a evaluar: 2, 3, 8 y 9.

La disertación se asociará a un bloque de contenidos básicos (A, B o C), pero el alumnado podrá valerse de autores/as de cualquier época para argumentar a favor y en contra, argumentar su propia opinión y/o relacionarla con el día a día.

2ª Competencia Específica. Claridad y precisión expresiva	3ª Competencia Específica. Adecuación de la estructura	9ª Competencia Específica. Argumentación correcta, rica y variada	8ª Competencia Específica. Originalidad
0,5 puntos	1 punto	1,5 puntos	1 punto
<ul style="list-style-type: none"> El vocabulario utilizado es claro y adecuado al tema. Hay continuidad entre los párrafos permitiendo una lectura fluida. La sintaxis es correcta. La presentación es adecuada. 	<ul style="list-style-type: none"> La introducción es clara: el tema está planteado correctamente, se expone la tesis central o se plantea con una nueva pregunta. El desarrollo es claro: se exponen ideas pertinentes a la cuestión planteada y hay conexión entre las ideas. La conclusión es clara: se retoma la tesis y se resumen los argumentos a favor / en contra previamente desarrollados. Se mantiene la coherencia: no hay contradicciones. 	<ul style="list-style-type: none"> Se hace referencia, al menos, a dos autores. Argumentación: está ligada a lo que se pregunta y es sólida. Se aportan, al menos, 2 argumentos. Para valorar lo anterior: <ul style="list-style-type: none"> Hay un esfuerzo por ser objetivo/a y crítico/a, y no dejarse llevar por prejuicios. Hay un esfuerzo por ofrecer un desarrollo sólido y coherente. Tiene en cuenta la complejidad del problema y refleja en su argumentación la diversidad de enfoques de la historia de la filosofía (menciona al menos dos visiones no compatibles entre sí, es decir, refleja dos visiones que no refieren al mismo argumento o idea) 	<ul style="list-style-type: none"> Los ejemplos son próximos a la vida cotidiana del alumnado. No se copia otra propuesta. Se muestra una perspectiva personal.

3.- PREGUNTAS TEÓRICAS. 5 PUNTOS (2 X 2,5 PUNTOS).

Competencias específicas a evaluar: 4, 5 y 6.

La puntuación puede corresponder con valores entre las calificaciones que se señalan a continuación.

0 PUNTOS: no se explican los conceptos filosóficos que requiere la pregunta. La respuesta no se ajusta a la cantidad de palabras requerida.

0,75 PUNTOS: se da una respuesta explicativa a la pregunta. El uso de conceptos filosóficos es meramente básico y la relación entre conceptos no es muy clara. La respuesta no se ajusta a la cantidad de palabras requerida.

PUNTO 1,5: se muestra un buen conocimiento de la pregunta. Se han utilizado los conceptos filosóficos requeridos por la pregunta, pero no se mencionan todos o se desarrollan suficientemente. La respuesta se adapta a la cantidad de palabras requerida.

2,5 PUNTOS: se muestra un conocimiento amplio y profundo de la pregunta. Es excelente la utilización de conceptos filosóficos y su conexión. La respuesta se adapta a la cantidad de palabras requerida.

CORRECCIÓN ORTOGRÁFICA:

Cada error ortográfico se penalizará con 0,1 puntos, hasta un máximo de 1 punto, suponiendo en total un máximo de un 10% de penalización sobre la nota final de la prueba.